

ZEG-028 Bertsoak

Zegama, Gipuzkoa

Aurkibidea

Biografia

Xabier Azurmendik Zegaman jasotako bertso eta kanta zaharrak. Bi gizonezko dira kantari ari direnak.

Zintak

ZEG-028

- **Proiektua:** Atzoko Zegama
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azurmendi Agirre, Xabier
- **Data:**
- **Iraupena:** 16 min
- **Euskarria:** Audio Analog

Pasarteak

1. Otañoren "Aita-semeak" bertsoak

- **Erref:** ZEG-028/001

• **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Otañoren 'Aita-semeak' bertso ezagunen zati bat.</p>

Transkripzioa

... bitarteko harturik Jesus gurutzian
egiaz aita ta ama batek aztutzian
ez leike izan ondo denbora luzian.

Iritsi da ordua juan bihar dezuna
badakizu aita ta ama hemen daukazuna
beti goguan izan hemen entz...

Iritsi da ordua juan bihar dezuna
badakizu aita ta ama hemen daukazuna
beti goguan izan gaur hemen entzuna
hau da hitz baterako eskatzen zaizuna:
izan zaitez nonahi ta beti kristau ona,
beti euskalduna!

2. Otañoren "Amerikako Panpetan" bertso-sortako bertsoa

- **Erref:** ZEG-028/002
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:01:42

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Gizonezko batek Otañoren 'Amerikako Panpetan' izeneko bertso-sortako azken bertsoa abesten du.</p>

Transkripzioa

...ikan maitiena,
onbu laztana, zu zera,
hargatik nator zure kolkora,
ni malkuak isurtzera,
iruditurikan natorrela
atariko intxaurpera,
beti izan nahi zaitut goguan,
baina joan nahi dut ostera,
Euskal Herriko lur maite hartan
nere hezurak uztera.

3. Otañoren 'Nere kabiya' bertso-sortako bertsoak

- **Erref:** ZEG-028/003
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:01:42. **Bukatu:** 00:02:32

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Otañoren 'Nere kabiya' bertso-sortako azken bi bertsoak.</p>

Transkripzioa

Euskal Herri guztiya
maite det benetan,
nere anaiak dira
probintzi denetan.
Baiñan Naparruako
mendi alaietan,
han jaio nintzan eta
hil nahi dut han bertan.

(Elizondoko) herri
maite ta laztana,
seme bat dadukazu
aztutzen ez dana.
Beti eskatzen nago
Jangoikuagana,
hil baiño len eraman
nazala Baztana.

4. Gazteluk Pello 'Errota'ri botatako bertsoa

- **Erref:** ZEG-028/004
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:02:32. **Bukatu:** 00:03:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Gazteluk Pello 'Errota'ri botatako bertsoa.</p>

Transkripzioa

Amerikara asko dijoaz
banaka eta binaka,
enpliorikan omen dabilta
alde haietan millaka;
Pello hau ere han ibillia
urte batzutan jiraka,
tabakorikan ez zuanian
pipa hutsari tiraka.

5. 'Goizuetan bada gizon bat' bertso-sorta

- **Erref:** ZEG-028/005
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:04:31

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>'Goizuetan bada gizon bat' bertso-sorta.</p>

Transkripzioa

Goizuetan bada gizon bat
deitzen zaiona 'Trabuko'
hitzak faltsoak, anima txarra
ez zaio iñoiz faltako
egin dituen dilijentziak
oraindik zaizka damuko. (bis)

Aranaztikan ekarri nuen
ekarri nere andria
hobe zukian ikusi ez balu
Berdabioko atia,
gaur ez zuen hark edukiko
dadukan pesadunbria. (bis)

Aita Jaunari otoitz dagiot
nola ez naizen bakarra
hazitzekuak hor uzten ditut
bi seme ta hiru alaba
Jaun zerukuak entzun dezala
hioen amaren negarra. (bis)

6. 'Haizak hi mutil mainontzi' bertso-sorta

- **Erref:** ZEG-028/006
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:04:31. **Bukatu:** 00:06:52

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>'Xenpelar' eta 'Muxarro' bertsolarien arteko bertso-trukea, 'Aizak hi mutil mainontzi' izenez ezaguna. </p>

Transkripzioa

Aizak Manuel, maiñontzi,
hurrengorako goraintzi:
Ez al hekien pipa hartzia
ez zala lizentzi?
Ohitura txar danak utzi,
bestela hezurak hautsi.
Gizalegia nola bihar dan
nahi det erakutsi.

Nik badut gizalegia
Prantxiskuk bezin hobia,
beste tatxarik ez zait arkitzen,
behartsu arlotia;
izaera det noblia,
kortesi berdingabia,
neri hezurak hausteko nun duk
abillidadia?

Sartu dit ziri bat neri,
orain bestia berari,
abilidaderikan ez duala
ez esan iñori;
azala daukak ugari,
mimirik ez zak agiri,
hezur igarrak hausten zailla duk,
bazekiat hori.

Bete itzak hire ordenak
laguntzen badik barrenak,
bestela parra egingo ditek
begira daudenak;
hik nun dituk kemenak,
menderatzeko gaillenak?
Hezur igarrak hautsitzen dizkik
indarra duenak.

7. 'Xenpelar' eta 'Patxi Bakallo'ren arteko bertso-trukea

- **Erref:** ZEG-028/007
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:06:52. **Bukatu:** 00:09:05

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>'Xenpelar' eta 'Patxi Bakallo'ren arteko bertso-trukea.</p>

Transkripzioa

Iñork baldin badaki
Oiartzungo berri,
eskumuiñak Ardotxi
eta Xenpelarri;
dibertsio polit bat
nahi genduke jarri:
birez erdi bezela
dago Bentaberri,
konbidatzen dittut
nahi badute etorri.

Desafio hori da
Bentaberrirako,
konformatzen badira
birez erdirako;
ez badute gogorik
haraiño etortzeko,
lagun bat hartuko det
nere guardirako,
berdin prestatuko naiz
Erreterirako.

Pazkua bigarren goiza
hartu nuan karta,
bestek firmatua da,

ez da zure falta;
suma ederra dezu,
eztarria alta,
etorriko naitzazu
hitz hoiak esanta
gizona konbitzia
dibertsio bat da.

Xenpelar probatzeko
egin duten masa,
gizon baten hitzari
eman diot traza;
ez Astigarragatik
honuntzago pasa,
bertara etorriko naiz,
egon zaitez lasa,
nahi dezun ordurako
eska zazu plaza.

8. Uharte Arakilgo San Migel aingeruaren inguruko bertsoak

- **Erref:** ZEG-028/008
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:09:05. **Bukatu:** 00:10:01

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Uharte Arakilgo San Migel aingeruaren inguruko bertsoak.

9. Karlsten inguruko bertsoa

- **Erref:** ZEG-028/009
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:10:01. **Bukatu:** 00:10:48

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Karlsten inguruko bertsoa.

10. 'Bidarraitarra' bertso-sorta

- **Erref:** ZEG-028/010
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:10:48. **Bukatu:** 00:13:19

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>'Bidarraitarra' bertso-sorta.</p>

Transkripzioa

Mila zortzirehun ta hemeretziyan,
urriaren hilaren bederatziyan,
gazte ta alegera, trankil bihotzian,
ontasuna franko badut interesian,
deusik ez etxian,
orain bezin aberats nintzen sortzian.

Nornahik ta zernahi erranikan ere,
bidarraitarra nauzu, baita nahi ere,
etxeko seme ona, segurki halare,
nahiz badiren herrian hobeagokoak ere,
bagire bortz haurride, enekin sei dire,
oro adiskide,
dotiaren gainetik samurtzen ez gire.

Aite zen etxeko ta ama zen kanpoko,
Jinkuak ein zituen elkarrenganako,
hiru mutikuek ta hiru neskatoko,
haurrik aski baituzte aisa bizitzeko.
ez [...] agian besterik sortzeko,
ez duk fidatzeko,
[landatuak] irriskatzen du pizteko.

Aite ezkondu zen nere amarekin,
ama aitarekin, biak elkarrekin,
orduan gazte ziren, beste zerbaitekin,
ontasunak igurri bertze haurridekin,
parte bat enekin,
enekin bainan gehigo bertze bortzekin.

Orain bagira hemen zenbait lagun,
botoila bana arno edan dezagun.
Lenik ona denez, hori jasta dezagun,
ta ona baldin bada, biga edan dezagun.
[Bila] zenbait lagun, hots, trinka dezagun,
[bila] zenbait lagun,
Diruak [...] ezagun.

11. Karlistada garaiko bertsoak

- **Erref:** ZEG-028/011
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:13:19. **Bukatu:** 00:14:52

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Karlistada garaiko bertsoak, Karlos V.a, Isabel erregina eta Tomas Zumalakarregi aipatzen dituena.

12. 'Ehun libera balio' bertso-sortako bertsoak

- **Erref:** ZEG-028/012

• **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:14:52. **Bukatu:** 00:16:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak

Laburpena:

<p>'Ehun libera balio' bertso-sortako zenbait bertso.</p>

Transkripzioa

Bertso berriak doazi
zortzi edo bederatzi (bis)
Urruñatik behar dut hasi
nahi dituenak ikasi.

Urruñan Iriartian
behor trukada batian (bis)
estofa txarra etxian.

Zaldi zuri-gorriya,
Bidartetik ekarriya, (bis)
Lau zango-besa zuriya,
buru [...] eroriya.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-13

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com